



EDITORIALA

Administrazioa – Dirulaguntzak – Elkarte-mugimendua DOITU EZIN KRONIKOA

ELKARTE-MUGIMENDU OSOAK PAIRATZEN DU DOITU EZIN KRONIKOA AURREKONTUAN, administrazioak DIRULAGUNTZA GUTXI ETA BERANDU ematen dituelako. Eta dirulaguntza horiek gabe ezinezkoa zaigu aurrera egitea.

Arartekoak berak eta Aldundi batzuek ere sumatu dute arazo honen larria, eta ikusi dute aztertu beharrekoa dela dirulaguntzak emateko datak egokiak ote diren eta, are gehiago, egokia litzatekeen elkarteen alorrean lan egiten duten profesionalen eskubideak babestuko lituzkeen Hitzarmen Kolektiboa sortzea.

Orain, Eusko Jaurlaritza berriak erabaki du dirulaguntza horiek emateko erabiltzen ziren irizpideak aldatzea, iruditzen zaiolako dirulaguntza horietako asko bikoiztuta daudela, eta, berez, udalek eta aldundiek eman beharrekoak direla. **Ikusteko dago zertan geratuko diren.**

Dena dela ere, bada gai bai inondik ere ez dena zuzena. URTEZ URTE, LAGUNTZA EKONOMIKOAK URTEKO AZKENEKO HIRUHILEKOAN EBATZI ETA KOB RATZEN DIRA, eta horren ondorioz IZUGARRIZKO DOITU EZINA izaten dugu aurrekontuetan, beste nonbaitetik atera behar dugulako dirua onartu ditugun jarduerak egingo baditugu

Jakina, horrek eragin handia dauka FEVAPASen.

Federazioaren lana benetan garrantzitsua da. Eta, halere, profesional bakarra edukitzeko adina baliabide ekonomiko besterik ez daukagu (eta beti berandu); **elkar teekin** eta boluntarioekin lan egiteko, horixe baita da gure egitekoaren funtsezko oinarria.

Aipatu beharra dago **elkar teen** baliabide ekonomikoak ere, jakina da, mugatuak direla, eta gorago esandako arazo berdinak dituztela, hortaz.

Esperantza daukagu krisi ekonomikoak ez duela murriztuko, are eta gehiago, administrazioak GURE SEKTOREARI ematen dion laguntza, hala balitz DESAGERTZEKO PUNTU-PUNTUAN GEUNDEKE-ETA

FEVAPAS PROGRAMAK 2009



SOZIALIZATZEKO JARDUERAK

Aisialdiko programa hezitzaileak.

Entzuteko ezgaitasuna daukaten Euskadiko ume eta neska-mutilentzako



EGUNEKO TXANGOAK, 7-14 urte bitarteko neska-mutikoentzat

Otsailaren 14an, gure 13 neska-mutil **EULATE** ikustera joan ziren, **Nafarroara**. Arnotegi gazta-etxea bisitatu zuten. Herrian bertan bazkaldu ondoren, Urbasara igo ziren elurretan jolastera. Primerako eguraldia izan zuten, eta neska-mutilak aldarte oneko zeudenez, primeran atera zen txangoa: oso gustura eta entretenituta egon ziren umeak.

Urriaren 3an, federazioko hiru elkarteetako 16 neska-mutil, **ARTZINIEGA** ikustera joan ziren, **Arabara**. Ordubete baino gehiago egon ziren bertako Museo Etnografikoa bisitatzen. Bazkalostean, herria ikusi eta zenbait joko eta jolas egin zituzten. Bai bisita keta bai jokoak oso gustuko izan zituzten begiraleek eta neska-mutilek.

AZKENEKO EGUNEKO TXANGOETAN ASKOZ UME GUTXIAGOK HARTU DUTE PARTE, NABARMEN GUTXIAGOK, ETA TXANGOAK EGITEA ERE KOLOKAN DAGO ORAIN.



ASTEBURU PASA, 7-14 urte bitarteko umeentzat eta federazioko gazteentzat

Maiatzaren 15etik 17ra, Fevapas federazioko **28 ume eta gaztek** Bizkaiko La Arboledan igaro zuten asteburua.

Eguraldi onari esker, hainbat ekintza egin zituzten gerizpetik kanpo, eta inguruko bazterrak ikusteko aukera ere izan zuten.

La Arboledako parkea eta interpretazio-zentroa ikusi zuten, besteak beste. Ingurumenarekin lotutako zenbait ekintza izan zituzten, eta kamisetak margotzeko pintura-tailerra ere izan zuten.

GAZTE-TOPAKETA, Euskadiko gazte gorrentzat.

Ekainaren 23tik 26ra bitartean, Fevapaseko Gazteen IX. Topaketa izan eta 26 gazte **Arabako Zuaza uhartean** ibili ziren, ingurua eta antolatutako



genuen. Lau egunez, federazioko elkarte-ekintzak disfrutatzen.

Aurreko urteetan baino askoz partehartzaile gehiago izan direnez, zalantzarik gabe esan dezakegu hauxe dela lekurik egokiena elkar-bizitza lantzeko eta irakasleek gai interesgarriak lantzeko neska-mutil gorrekin. 2009. urtean, laguntza-begirale bat izan dugu, partehartzaile berrietako batzuei egokitzen laguntzeko.

KANPAMENTUAK, 7-14 urte bitarteko neska-mutilentzat

Uztailaren 5-15 bitartean, Nafarroan, **Lekarozen bildu ziren 7-14 urte bitarteko 38 gaztetxo (24 gorrak eta 14 entzuten dutenak)**, egun eder batzuk pasatzeko elkarrekin. Aurtengo gai nagusia "Munduko hizkuntzak" izan zen, eta begira zenbat ekintza antolatu ditugun: txango kulturalak, mendi-irteerak, igerilekua, olimpiadak, jokoak (elkarlana bultzatzekoak, jakintzakoak, arrastoak jarraitzekoak, hezitzaileak...), tailerrak (eskulanak, ingurumena lantzekoak, komunikazioa lantzekoak...), gauraldiak (beldurraren gava, argazkiak ikustea, elkarrekin pasatutako egunen gaineko hausnarketa eta balorazioa, diskoteka, ekintza gehiago prestatzea... Esan behar da kontratatu genuen multiabentura izan zela neska- mutilek gehien gozatu duten ekintza.

Gainera, aurten ere bi ekintza aipatu behar ditugu bereziki: Fevapas-eko gazteen bisitak eta Bielorrusiatik Arabara opor-pasa datozen ume gorren bisita.



2010erako BEHIN-BEHINEKO programa:

Otsaila: Elurretara irteera, Urkiola ingurura . **Martxoan:** 15-17 urte bitarteko gazteentzako eguneko txangoa. **Maiatza:** Asteburua, Araba inguruan .

Ekaina: Zuazako Uhartean gazte-topaketa. **Uztaila:** Kanpamentuak Kantabrian . **Urria:** Eguneko txangoa, Bizkaia aldera.

BOLUNTARIOAK— Begiraleak

Ekintza horiek ezinezkoak lirateke begirale boluntarioen taldearen laguntza eta lanagatik izan ezean, eskerrak federatutako elkarteek eta Fevapasek baditugun boluntario laguntzaileak.

Horregatik, “Boluntario antolatuei prestakuntza, laguntza eta bultzada” programaren bidez, boluntariook Fevapaserako egiten duten lanean sortutako gastu, joan-etorri eta dieta guztiak **ORDAINTZEN SAIAITZEN DA** federazioa; eta duela urte batzuetatik hona **prestakuntza-ikastaro** bat antolatzen du, betereanoen prestakuntza gaurkotzeko eta taldekoen erreleboa lortzeko asmoz.



“JOLASEAN IKASI; jokoaren balioa, munduko jokoak, joko ez sexistak...”



Horixe da aurten, Donostiako La Sirena aterpean, **urriaren 24 eta 25ean, begiraleak prestatzeko egindako ikastaroaren izenburua. 19 lagunek hartu zuten parte, 8 gor eta 11 entzuten dutenak. Urtxintxa Eskolako bi profesionalek eman zuten ikastaroa, eta Azalia Gómez eta Iker Amondarain arduratu ziren, aurten ere, ikastaroa zeinuen hizkuntzan emateaz.**

Ikastaroaren ebaluazio orokorra oso ona izan da aurten, batez ere, hizlariari buruz, ILS buruz eta edukiei buruz.

FAMILIAK

2009an, familiaren eta gorren BIZI KALITATEA HOBETZEKO helburu nagusia gogoan hartuta, **elkarte federatuak koordinatzen** jarraitu du **Fevapasek**, familiei laguntzeko elkarrekin egiten duten lana bultzatuz.

Lanaren xedeak: 1.- Orientazio eta informazio gaurkotua, zabala eta zehatza 2.- Laguntza psikologikoa eta emozionala, eta 3.— Familiari informazioa eta prestakuntza ematea.

Baliabideak: 1.— Zuzen-zuzeneko arreta eta kasu bakoitzaren jarraipena 2.— Bakoitzaren eskaeren kudeaketa 3.— Gurasoa-gurasoa asistentzia 4.— Hausnarketa- eta prestakuntza-taldeak 5.- Laguntza psikologikoa 6.— Familien topaketak 7.— Sozializazio-ekintzak 8.— Aldiz aldiko koordinazio atarteko diren profesionalekin (otorrino, entzumeneko protesista, logopeda, hezitzaile eta abarrekin). 9.— Informazio-hitzaldiak eta prestakuntza-hitzaldiak 10.— Sentsibilizazio-ekimenak.....

FUNTZIONAMENDUA

Federazioaren lanari bultzada emateko helburua izan dugu aurten ere: bilerak egin ditugu (Zuzendaritza Batzordea, martxoan eta azaroan; Batzar Nagusia, maiatzean; aisialdiko teknikariek eta federatutako 3 elkarteetako familiek), hainbat programa bultzatu ditugu 2009an; dirulaguntzak eskatu dizkiegu erakunde pribatu nahiz publikoei, finantzazio-iturri berriak aurkitu nahian.

Bestalde, Fevapasek: 1.- Gorren bestelako erakunde eta federazioarekin jardun du koordinatzen 2.- Hainbat forotan hartu du parte eta, horretan dihardu orain ere (Edeka, Boluntarioen Euskal Kontseilua, Eusko Jaurlaritzako Batzorde Sektorialak...) 3.- Bilerak egin ditu Eusko Jaurlaritzako hainbat sailletako ordezkariekin, gure taldearentzat interesgarri eta ondorio askoko diren gaiak lantzeko eta 4.- Hainbat jardunaldi, mintegi eta hitzalditan parte hartu du.

2009ko DIRU-LAGUNTZAK

URTE HASIERAN, laguntza ekonomikoa eskatu genien Eusko Jaurlaritzako zenbait saili, finantza-erakunderi eta, elkarte federatuen bidez, lurralde bakoitzeko Foru Aldundiei. URTE BUKAERAN, badira erkidegoko administrazioaren zenbait dirulaguntza oraindik emateke.

Aurten ere, dirulaguntzen ebazpenak atzeratzeak eta, horren ondorioz, erabil daitekeen dirua ere beranduago heltzeak segurtasun falta handia sortu digu eguneroko lanean eta programak garatzeko.

Hiru Foru Aldundiek diru apur bana eman dute Fevapasek 2009ko kanpamenduei laguntzeko.

Bestalde, Kutxa eta Can izan dira Federaziotik eginiko diru-eskaerari erantzun dioten finantza-erakunde bakarrak.

2009an F E V A P A S ZEINEKIN

Eusko Jaurlaritzako HEZKUNTZArenkin: Otsailaren 18an eta azaroaren 16an, Hezkuntza Batzordearekin batzartu zen Fevapasa, batzordeko kidea da-eta. Hona landutako gai-zerrenda: Eskolaratze berriak — giza baliabideak eta material-baliabideak — EAEko ikasle gorren diagnosi-ebaluazioa

— Euskal Eskola Indusiboaren plana...

OSAKIDETZArenkin: lazko bileraren ondoren, behin baino gehiagotan saiatu gara detekzio goiztiarra programako arduradunekin harremana izaten, haiekin bildu baikinen pasa den urtean, hitz eginda bezala, programa hori nola garatzen ari den jakinarazi ziezaguten, eta programari buruz abiarazi berri zuten ikerketa-lanaren berri eman ziezaguten. Erantzunaren ZAIN GAUDE ORAINDIK.

Eusko Jaurlaritzako OSASUN-SAILArenkin: Martxoaren 24an, federatutako hiru elkarteetako ordezkariak Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Farmazia Zuzendaritzako arduradunekin bildu ziren. Gai hauetaz mintzatu ziren: — Aholkulari-batzorde Nazionala — Audifonoen finantzazioa, zaintza eta konponketa, eta inplante koklearrak — Logopedia-tratamendua (diruz ordaintzeko irizpideak) — Osakidetzarekin koordinazioa...

Eusko Jaurlaritzako GIZARTE-ONGIZATEKO SAILArenkin: Abuztuaren 19an, Fevapaseko lehendakaria eta koordinatzailea Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaien saileko Gizarte Zerbitzuetako zuzendariarekin (Gurpe jaunarekin) bildu ziren.

Gai hauetaz mintzatu ziren: — Federazioaren premiak eta egoera — Eusko Jaurlaritzako zuzendaritza eta sailen aldaketa eta berregituratzeak — 2010erako dirulaguntza-lerro berriak...

ARARTEKOArekin: 2009. urtean telefonoz hitz egin dugu zenbait aldir erakunde honekin, iaz aurkeztu genuen kexu-idazkia zertan den jakiteko. EITBk bere azpitu-luetan Irigarritasuna Bultzatzeko Legea ez duelako betetzen jarri genuen kexua, eta Arartekoarekin berarekin eta teknikariekin bilera batzuk izan genituen kontu hori zela-eta. TRAMITETAN DABILTA ORAINDIK.

EITBrenkin: Irailean, erakundeko ARDURADUN BERRIEKIN bilera egitea eskatu genien. ERANTZUNAREN ZAIN GAUDE ORAINDIK

EDEKArekin - Urritasunari buruzko bestelako euskal federazio batzuetan kidei zuten eta lan egiten jarraitzen du oraindik Fevapasek, Edekararen bidez (euskal Cermi). Aurten: — Erakundearen plan estrategikoa diseinatu da — Hitzarmen ekonomiko bat sinatu dugu Eusko Jaurlaritzarekin, eta zenbait gauzen kostuak ordaintzeko dirulaguntza jaso dugu: web-orria, 2009ko Jardunaldia, informatikako ekipamendua, bestelako gastu batzuk eta, Ede Fundazioaren bidez, lan-jardun erdiko profesional baten kontratazioa Edekarako (azaroaren 2an hasi zen lanean). - Datorren abenduaren 11n, gure erakundearen Batzar Nagusia eta jardunaldia izango dugu Bilbon. Edekar ordezkatzeko dituen erakunde guztietako laguntzako izango da jardunaldia: bertan, estatuko Cermi-ko delegatu batek Mendekotasun Legearen aplikazioari buruzko balorazio orokorra egingo digu, eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietako sailburuordetzako ordezkari batek, berriz, hurrengo urteetarako zer-nolako urritasun-politikak aurreikusten dituzten azalduko digu.

2009an, FEVAPAS NON?

- 1.- "Urritasunagatik baztertuz gero nola erreklamatu" izeneko konferentzia (Bilbon, 2009ko otsailan). Antolatzaile: CNSE eta Euskal Gorra .
- 2.- "Generoaren ikuspegia kontuan hartzen duen esku-hartzera bidean" jardunaldia (Gasteizen, 2009ko apirilean). Antolatzaile: Gizarte Terapiako Unibertsitate Eskola eta Arabako Gizarte Langileen Elkargo Ofiziala.
- 3.- "Giza eskubideak eta urritasuna, jendarteko bizimodu independentea helburu" (Bilbon, 2009ko maiatzean). Antolatzaile: Fekoor-Bizkaiko Pertsona Urrituen koordinatzailea.
- 4.- "Politika Publikoen erronkak demokrazia aurreratuaren baitan". Antolatzaile: Arartekoa
- 5.- "Genero-ikuspegia proiektuetan txertatzea". (Gasteizen, 2009ko maiatzean). Antolatzaile: Erdu (Elkarteen Udal Agentzia)
- 6.- "Hezkuntza global eta integrazioaren alde. Ikasle gorren etorkizuna" jardunaldiak (Madrilen, 2009ko maiatzean): Antolatzaile: CNES
- 7.- "Emakume gorra" jardunaldia (Donostian, 2009ko urrian). Antolatzaile: Euskal Gorra
- 8.- "Familia gorra, eta entzuten duten seme-alabak" (Bilbon, 2009ko azaroan). Antolatzaile: EG



FEVAPASEN IZENEAN,
EGUBERRI ON

LAGUNTZAILEAK



Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila
Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila